

Lurralde : invest. espac.	40	2017	p: 55-79	ISSN 0211-5891	ISSN 1697-3070 (e)
---------------------------	----	------	----------	----------------	--------------------

GIPUZKOA HERRIALDEKO UDALERRIEN EGOERA IRAUNKORTASUNARI DAGOKIONEZ: AZTERKETA ESTADISTIKO BAT.

ARTITZAR ERAUSKIN TOLOSA

Ekonomia Aplikatua I saila
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea,
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
artitzar.erauskin@ehu.eus

LABURPENA: Ikerketa lan honen helburua Araba eta Bizkaiarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duen Gipuzkoa Herrialdearen errealtatearen ezagutzan sakontzea da. Horretarako Gipuzkoako udalerrri guztientzat eskuragarri dauden datu estatistikoez baliaturik sozio-ekonomia eta ingurumenari loturiko ezaugarri nagusien aurkezpen sintetiko bat egingo da lehenik eta ondoren aldagai anitzeko teknika estatistiko batez baliaturik Gipuzkoako Herrialde osora hedatuko den iraunkortasunari buruzko azterketa bat garatuko da. Hau da, Udalmap delakoan aurki daitezkeen adierazleetan oinarrituko gara eta Osagai Nagusien Análisis (ONA) metodologiaz baliatuz Gipuzkoako udalerrien sailkapena egingo da iraunkortasunaren erreparatuta.

Gako Hitzak: Gipuzkoa, Udalerrriak, Iraunkortasuna, Adierazleak

RESUMEN: El objetivo del presente trabajo es profundizar en el conocimiento de la realidad municipal de Gipuzkoa, uno de los tres territorios históricos o provincia, junto con Araba y Bizkaia, que integra la Comunidad Autónoma del País Vasco mediante la presentación sintética de sus principales características socioeconómicas y medioambientales a partir de la información estadística disponible. Para ello, se ha aplicado el método de Análisis de Componentes Principales a partir de una serie de indicadores que se recogen en el Panel de Indicadores de Sostenibilidad para los municipios de la CAPV de UDALMAP para posteriormente definir un nuevo indicador de sostenibilidad que engloba un conjunto de indicadores heterogéneos pero que a su vez permite visualizar de una manera más directa el grado de sostenibilidad de cada uno de los municipios. Finalmente se recogen los principales resultados del análisis.

Palabras clave: Gipuzkoa, Municipios, sostenibilidad, indicadores.

ABSTRACT:

The aim of this study is to deepen the knowledge of the local reality of Gipuzkoa, one of the three provinces or province, with Araba and Bizkaia, which integrates the Basque Country by synthetic presentation of its main socio-economic and environmental from the available statistical information. To do this, we applied the method of principal component analysis from a series of indicators that are included in the Panel of Sustainability Indicators for the municipalities of the Basque Autonomous Region, UDALMAP, to further define a new indicator of sustainability that includes a set heterogeneous indicators but which in turn allows to view in a more direct way the sustainability of each of the municipalities. Finally we summarize the main results of the analysis.

Key words: Gipuzkoa, sustainability, indicators, municipalities

1. SARRERA.

Nazio Batuak (NNBB) garapen iraunkorra ekonomi, ingurumen eta gizarte garapena gidatu duen oinarritzko printzipio moduan zehaztu du. Printzipio honi esker “etorkizuneko belaunaldien beharizanak asetzeko eskubidea” eta “ekonomiaren garapenak eragindako ingurumen kostu eta onurak herrialde ezberdinen arteko modu ekitatiboan banatzea” helburuak bermatu nahi dira (WCED, 1987). WCED-ren arabera (1987) iraunkortasunak ingurumena eta natura baliabideak babestea eskatzeaz gain ongizate ekonomikoa eta soziala eskaintzen die egungo eta etorkizuneko belaunaldiei. Aurrekoaz gain, garapen iraunkorra sozialki justua eta etikoki onargarria den garapena bezala ere ulertzen da. Beraz, garapen iraunkorra gaurko gizarteak jarraitu behar duen printzipio erregulatzailer nagusi moduan aitortu da eta epe luzean egungo eta etorkizuneko belaunaldien arteko erlazio etikoak mantentzea eskatzen du (Scholz, 2011). Ingurumena, gizartea eta ekonomia oinarritzko hiru ardatz nagusi bere baitan hartzen dituen kontzeptu zabal bat da garapena iraunkorraren kontzeptua. Beraz, kapital naturala, giza kapitala eta kapital ekonomikoa edo hizkera arruntagoan lurra, hiritarrak eta mozkin ekonomikoak aintzat hartzea eskatzen du garapen iraunkorra sustatuko duen ereduak (Schoolman, Guest, Bush, & Bell, 2012; Hansmann, Mieg, & Frischkencht, 2012). Baina sarritan hiru ardatz nagusi hauen arteko oreka bilatzen dituzten ikuspuntua oso kritikatu izan da, besteak beste, ardatz bakoitzak helburu mota ezberdinak dituelako eta modu zuzen batean alderatzea ezinezkoa delako; honen adibide dira esate baterako, bioaniztasuna, paisaiaren edertasuna eta kostuak, mozkin ekonomikoak eta ekitatea, osasuna eta kultur ondarea, etab (Mieg, 2012) artean sortzen diren interes kontrajarriak. Are gehiago, askotan ardatz bakoitzaren baitan interes talde edo stakeholder ezberdinek helburu kontrajarriak izaten dituzte. Beraz, lurralde, gizarte eta ekonomia oreka sustatzerakoan gatazka sozialak, gatazka ekonomikoak, ingurumenari loturiko gatazkek gainditzetik haratago joan behar da.

Artikulu honetan aurkezten den azterketak garapen iraunkorraren kontzeptuaren baitan biltzen diren hiru ardatz nagusiak kontuan izango ditu. Jakina denez, ardatz bakoitzak bestearengan modu positibo zein negatibo batean eragin dezake. Elkar eragin positiboak identifikatzea ezinbestekoa izango da iraunkortasuna sustatzeko neurriak hartu nahi direnean. Alegia, garrantzitsua da ondoko galdera motei erantzun bat bilatzea – *nola maximotu daitezke aldi berean emaitza sozioekonomikoak eta ingurumenaren kalitatea?*

Garapen iraunkorraren hiru ardatzak modu positibo batean integratzen dituzten estrategien adibide dira, esate baterako, Europar Batasuneko Batzordeak proposatu duen garapen

iraunkorra sustatzeko Europa 2020 estrategia eta EcoEuskadi 2020, Euskadiko Gobernu Kontseiluak aurkeztua, Euskadiko garapen iraunkorrerako estrategia. Europar Estrategia berri honek Europa EB mundu maila globalean ekonomia lehiakor eta dinamikoena bilakatu nahi du (European Commission, 2011); ezagutzan oinarrituko dena, enplegu gehiago eta hobeekin ekonomiaren hazkundera bermatu duena eta gizarte kohesio handiagoa lortu duena. EcoEuskadi 2020 estrategiak baliabide gutxiago kontsumituz gizarte modu orekatuagoan garatzea ahalbidetu nahi du; hazkunde ekonomikoa, gizarte ongizatea eta ingurumen baliabideen mantentzea egoki lotuko dituen ekonomia berrirako aldaketak burutuz (Eusko Jaurlaritzak, 2011). Mota honetako sinergiak arlo akademikoan zein diskurtso publikoetan jaso izan dira. Adibidez, ingurumenaren kalitate onak, paisaiaren edertasunak eta bioaniztasunak ekonomia erregionalari onurak sortzen dizkio, besteak beste, turismo iraunkorraren bidez tokiko komunitateak probestuz (Gurung & Scholz, 2008), eraikuntza iraunkorrak baliabide ez berriztagarrien erabilera murrizten du eta ondorioz aurrezki ekonomikoak sortzen dira (Vatalis & Manoliadis, 2011), modu orokor baten onartua dago eguzkia edota haizea bezalako baliabide berriztagarrietan oinarritutako energia iturrien teknologia berritzaileak garatzeak enplegu berriak eta hobek sortuko dituen ekonomiaren hazkundera sustatzeaz gain CO₂ isurketak murriztu eta baliabide ez berriztagarrien erabilera gutxitzea dakarrela (Dalton & Lewis, 2011).

Beraz, gizarte komunitate maila ezberdinak garapen iraunkorraren aldeko ekintzak sustatuko dituzten konpromisoak hartzea eta hiritarrak garapen iraunkorra bermatuko dituzten eredueta bideratzea etorkizuneko erronketako bat da. Bereziki administrazio maila baxuenak kontzientziatzea ezinbestekoa da garapen iraunkorraren alde jarduteko, maila hau baita hiritarregandik gertuen aurkitzen dena. Horrez gain, tokiko biztanleria, enpresa eta politikarientzako onurak sortzen badira garapen iraunkorrarengan eragiten duten aktore guztiek irabazle suertatuko dira.

Agenda 21 dokumentuak iraunkortasuneranzko urratsak ematerakoan tokiko agintariek duten garrantzia azpimarratzen du (Bosworth, 1993). Izan ere, herrialde batek garapenaren lerro nagusiak zehaztu ostean udal administrazioek, administrazio hierarkiaren oinarrian aurkitzen direnek, lerro nagusi horiek garatuko dituzten neurri zehatzak finkatu behar dituzte. Bestalde, herrialde mailako agintariek udalerriek dituzten kezka eta lehentasunak ezagutu behar dituzte garapenaren lerro nagusiak zehazterakoan eta hori posible izango da udalerrri mailako arduradunek beraien egoerari buruzko informazioa modu egoki batean jasotzen badute. Beraz, udalerriek helarazitako informazioaren kalitatea, iraunkortasun jarduerari buruzko informazioa sintetizatzeke modua eta herritarrei informazio hori ezagutarazteke modua, kontuan izan beharreko hiru elementu garrantzitsu dira.

Zentzu horretan, artikulu honen helburu nagusiak ondorengoak dira. Lehenik eta behin, iraunkortasunaren ardatz ezberdinetako aldagaiez baliaturik Gipuzkoa Herrialdeko udalerrien egoera non kokatzen den aztertuko da. Horrez gain, iraunkortasunaren araberrako udalerrien sailkapen bat egingo da. Horretarako, ondorengo bi ataletan, testuinguru teorikoa eta landutako metodologia azaltzen dira. Jarraian, Gipuzkoako Herrialde osora hedatuko den iraunkortasunari buruzko azterketa bat garatuko da aurrerago xehetasunez azalduko den teknika estatistiko batez baliaturik. Ondoren, burututako ikerketa lanaren ekarpen azpimarragarrienak eztabaidatzen dira eta, amaitzeko, ikerketa lan honen ondorio esanguratsuenak biltzen dira.

2. TESTUINGURU TEORIKOA

XX. mendearen 60 eta 70eko hamarkadatik aurrera hazkunde ekonomikoari buruzko eztabaida aldatzen hasi zen. Baliabide naturalen agorpena, kutsadura-arazoak eta hondakinen kudeaketa gizarte industrialetako arazo nagusienetarikoa bilakatzean,

ekonomialariak beraien analisietan, berriro ere, natura kontuan hartzen hasi ziren. Gari honetan, beraz, mugarik gabeko hazkundearen aurkako lehen aldarrikapenak sortu ziren; hau da, lurraren muga biologikoak kontuan izan behar direla ohartarazten zituztenak, izan ere petrolioaren krisia ingurumena zein bizi kalitateari eragiten ari zitzaion kaltea gero eta nabariagoa zen (Meadows, Meadows, Randers, & Behrens, 1972; Daly, 1987; 1989; Pimentel, et al., 1973). Egoera berri honen aurrean ekonomialariek beraien paradigmatik berrikusteari ekin zioten.

Hazkundearen etetea defendatu zuen lehengo azterketetako bat, Erromako Klubak¹ “The limits of the Growth²” izenarekin argitaratu zuen bere lehen txostenean (Meadows, Meadows, Randers, & Behrens, 1972). Jakintza-arlo anitzeko ikuspegia erabiliz, azpigaratutako herrialdeen zero hazkundearen planteamenduekin eztabaida handia eragin zuen eta baliabide naturalen muga kontuan izanik garapen eredu alternatiboak aurkitzeko beharra azpimarratu zuen. Txosten hau, mundua kolapsora iritsi daiteken sistema itxia denaren tesituran oinarritu zen. Industrializatutako herrialdeek 1960 eta 1970ko hamarkadetan erakutsitako hazkunde tasekin jarraituko balute XXI. mendearen erdialderako muga ekologiko gehienak gaindituko zituztela jaso zuen. Beraz, epe laburrean, “*hazkunde ekonomikoaren berehalako murriztea*” beharrezkotzat jotzen zuen I. Meadows txostenak.

Testuinguru horretan egin zen Nazio Batuen Giza Ingurumenari buruzko konferentzia Stockholm hiriburuan, 1972. urtean. Bertan nazioarteko komunitatea lehenengo aldiz bildu zen mundu mailako garapen eta ingurumen beharrak aztertu asmoz. Garapen eta ingurumen auzien arteko harreman zuzenik onartu ez zen arren, ordura arte indarrean zegoen ekonomiaren garapen ereduak aldaketa bat behar zuenaren zantzuak plazaratzeko baliagarria izan zen (Mebratu, 1998).

1972ko Nazio Batuen Giza Ingurumenari buruzko konferentziaren ondoren, pixkanaka gero eta nabariagoa zen ingurumena eta garapena ezin zirela luzaroan gatazka egoera batean mantendu. Aldi berean, terminologiaren bilakaera prozesu bat jaso zen “ingurumena eta garapena” (environment and development), “suntsiketarik gabeko garapena” (development without destruction) eta “ingurumena zaintzen duen garapena” (environmentally sound development). Azkenean, “eko-garapena” terminoa azaldu zen 1978. urtean Nazio Batuen Ingurumen Programak (UNEP, 1978) argitaratu zuen txostenean. Ordurako, nazioarte mailan ingurumen eta garapen ideiak batera landu behar zirela onartua zegoen.

Urte batzuk geroago, Tryznak (Mebratu, 1998an aipatua) diotenaren arabera, garapena eta ingurumenaren ikuspegi kontzeptual berriranzko aurrerapausorik handiena “World Conservation Strategy: Living Resource Conservation for Sustainable Development”³ txostena IUCNek (1980) aurkeztu zuenean eman zen. Txosten honek ingurumena eta garapenaz hitz egiterakoan *kontserbazio*⁴ kontzeptua marko moduan izan behar dela azpimarratzen du. Ez du garapen iraunkorra bere horretan definitzen, baina garapenak iraunkorra izateko faktore ekonomikoez gain, faktore sozial eta ekologikoak; oinarritzko baliabide biotiko eta ez-biotikoak; eta hautabidezko ekintzen abantaila eta desabantailak epe laburrean zein epe luzean kontuan izan behar dituela aurreratzen du (IUCN; UNEP; WWF, 1980). Horrez gain, iraunkortasun terminoa eta, garapena eta ingurumenaren arteko lotura zuzena sarritan errepikatzen da txostenean.

1 Modu kezagarrian hedatzen ari zen ingurumen krisi globala aztertzeko Erroman bildu ziren goimailako zientzialariak eta kontzientziatutako hainbat hiritarrek osatutako kluba.

2 I. Meadows txostena bezala ere ezagutzen da

3 Txosten hau IUCN, WWF eta UNEPek FAO eta Unescoren lankidetzarekin prestatu zuten.

4 Kontserbazioa, naturako *baliabideak, ekosistemak eta organismoak zaintzea, babestea, suspertzea eta ugaritzea helburu duen ingurune-kudeaketa bezala ulertua*

Nairobin, 1982an, egin zen Nazio Batuen Ingurumen Konferentziaren porrotaren ostean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Ingurumen eta Garapeneko Mundu Batzordea osatzea erabaki zuen. Gro Harlem Brundtland batzordearen lehendakari izendatu zuten, hortik Brundtland Batzordea bezala ere ezagutzen da eta 1987. urtean “Brundtland Txostena” bezala ezaguna den “Our Common Future” izeneko lana argitaratu zuen. Txosten honek garapen iraunkorra kontzeptuaren instituzionalismoaren inflexio puntua zehaztu zuen, ordura arte, eztabaida akademiko bat besterik ez zena politika mundura igaro zen. Bestalde, Garapen Iraunkorra terminoaren definizio zabalduena argitaratu zuen:

“...[Garapen Iraunkorra] gaurko belaunaldien premiak asetzen dituen garapena da, baina hurrengo belaunaldiek beraien beharrianak asetzeko duten eskubidea arriskuan jarri gabe.”(Eusko Jaurlaritz, 2002, or. 9)

Aurreko definizioak funtsezko bi kontzeptu ditu:

- “beharrian” kontzeptua, bereziki munduko txiroen oinarrizko beharrianak. Hauek ezinbesteko lehentasuna dute
- Teknologia eta erakunde sozialen aurrerapen mailak ingurumena kudeatzerakoan zehazten duten mugari buruzko ideia

Brundtland Batzordeak, hazkunde ekonomiko iraunkor baten bidez pobrezia arindu, ingurumenaren egoera hobetu eta berdintasun sozial handiagoa lortzea ahalbidetuko duela azpimarratzen du. Ondorioz, gehien hedatu den garapen iraunkorraren definizioak onespenez oso zabala izan du. Baina definizio hau bere anbiguotasunagatik kritikatu izan da (Bermejo, 2001), batik bat, ekonomia ekologikoa adarretik. Kelly et al.en arabera (2004) anbiguotasun egoera batetik klaxe batean bihurtzeko arriskuan aurkitzen da. Bestalde, baliteke, anbiguotasun horri esker adostasun handia lortu eta terminoa horrenbeste hedatu izana (Redcliff, 2000).

Garapen Iraunkorrarekin lortuko diren helburuei baliabide naturalak etorkizuneko belaunaldientzat mantentzearen beharra ere gehitzen dio Brundtland txostenak, baina ez du hazkundearen aurkako jarrerarik proposatzen, are gehiago; bizi kalitate hobea bat lortzeko hazkunde handiago baten garrantzia aipatzen du, garatutako herrialdeen %3 edo %4 inguruko hazkunde tasa beharko litzateke munduko ekonomia maila orokortu ahal izateko (WCED, 1987, or. 7). Honez gain, herrialde azpigaratuen hazkunde ekonomikoaren suspertzea ere ezinbestekotzat jotzen du. Oostera, garapena hazkunde ekonomikoa bakarrik ez dela onartzen du, hazkunde ekonomikoaz gain beste gizarte- eta ingurumen-aldagaiak ere barneratzen ditu garapenak. Baliabide eta energiaren kontsumo txikiagoa eta gizarte ekitate handiagoa eragingo duen hazkunde eredu batera aldatzeko beharra ere eskatzen du(WCED, 1987, or. 8).

Ekonomia jakintza-erlotik, ikuspegi desberdinak plazaratu dira, zenbait egile herrialde garatuetan baliabide naturalen kontsumoan oinarritutako hazkundearekin etetea proposatzen dute (Kelly & Moles, 2000). Beste pentsamendu eskola batzuk (Jacobs, 1996; Field, 1995; Kolstad, 2001; Field & Field, 2003) muga gabeko hazkundera eta iraunkortasuna bateragarri ikusten dute, beti ere ingurumen politika egoki batzuk kontuan hartzen badira. Are gehiago, batzuen arabera hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren hobekuntza bata bestearen euskarri dira. Brundtland Txostena egin zutenen ekonomialarien artean badago, gerora, McNeill adibidez, hazkundearen aldeko jarrera hartu duena (Goodland, Daly, El Serafy, & Von Droste, 1997). Finean, garapen teknologikoak hazkunde ekonomikoa eta ingurumen hobekuntza bultzatzeko duen gaitasun bikoitza azpian eta ekonomia ortodoxoaren kokatzen da (Jiménez Latorre & Rams Ramos, 2002).

Arlo politiko zein sozialean ere Garapen Iraunkorra kontzeptua erabat zabaldu da, sarritan, terminoaren neurrigabeko erabilera jatorrizko ideiak baztertu ditu (Goldin & Winters, 1995). Intuitiboki denek ulertzen duten kontzeptua izan arren oraindik praktikan jartzeko zaila da (Lélé, 1991). Garapen Iraunkorra ez da ingurumenaren babesaren sinonimoa, nahiz eta praktika politikoak ez dituen ondo bereizten (Subirats 2000a, 2000b). Hazkunde iraunkorarekin ere ezin da nahastu, askotan garapen iraunkorra modu kontraesankorrean eta ez zehatzean erabiltzen baita batik bat arlo politikoan (Allende, 2000). Brundtland berak esana, Garapen Iraunkorra "hiritarrak lehen planoan jartzea" da. Alegia, Garapen Iraunkorraren protagonista nagusienak hiritarrak dira, azken finean, hauek baitira berain ekintzak aldatu eta Garapen Iraunkorrak eragindako onurak gozatzeko aukera izango dutenak.

Bartonek (2006, or. 31) dioen moduan, mundu mailan garapen iraunkorari loturik egin diren goi-bilera eta onartu diren dokumentuek, besteak beste, Rioko Goi-Bileran hitzartutako gauzatzeko tresna operatiboa izateaz gain tokian tokiko hiritarren garrantzia azpimarratzen duen Agenda 21 dokumentua edota Milurteko Adierazpenek argi uzten dute iraunkortasunaren agenda maila ezberdinetan erabiltzeaz gain (nazioartean, nazioetan edo maila lokalean) garapen iraunkorrak zeharkako izaera duela. Gainera, Agenda 21 dokumentuak ingurumen-arazoaren eta hauek garapen-prozesuekin duten erlazioaren gaineko kontzientzia soziala areagotzen modu esanguratsuan lagundu zuen (Etxano, 2015).

Europar Batasunaren mailan, 1992an Ingurumen Ekintzaren Bosgarren Programa onartu zen, "Ingurugiroaren eta Garapen Jasangarriaren alorretarako Politika eta Ekintza Komunitariorako Programa (1992-2000)". Bosgarren programa honen helburu nagusia giza jarduerak pixkanaka izaera iraunkorragoa duten ereduera bideratzea da horretarako garapen, ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatuz. Egun, 2012an onartu zen Ingurumenari buruzko Europa Erkidegoko Zazpigarren Ekintza Programa dago indarrean. Programan honen bidez Europar Batasuna kapital naturala babestu, berrikuntza sustatu eta karbono maila baxuko zein baliabideen erabilera eraginkorra izango duen hazkundera bultzatzeko ahalegin bereziak egiteko konpromisoa luzatzen du biztanleriaren osasuna eta ongizatea errespetatuz baina Lurraren muga naturalak gainditu gabe .

Euskal Autonomia Erkidegoan Ingurumena Babesteko 3/1998 Legeak zehazten du ingurumen markoa. Lege honek EAEko ingurumen politika lau urtetik behin berritzen den Ingurumen Esparru Programan jasotzen da. Hainbat estrategia eta esparru programa onartu dira eta guztiek helburu nagusi moduan euskal gizarteak lortu beharko dituen ingurumen helburuak finkatzea izan dute, egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe. Gaur egun indarrean dagoen IV. Ingurumen Esparru Programak, 2015tik 2018ra bitartekoak, 5 helburu estrategiko proposatzen ditu, denak Eco-Euskadi Estrategia 2020an identifikatutako erronkei aurre egiteko helburuei loturik.

Aurrekoaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Iraunkortasunerako udal adierazleei buruzko 2009. urteko txostenak tokiko agintariak iraunkortasuneranzko urratsak bultzatzeko testuinguruan, bai lurraldearekin, bai gizartearekin zein habitatarekin lotura duten faktoreak elkartzea aintzat hartu behar dela azpimarratzen du. Izan ere, etorkizuneko apustuak bat izango baita bizi-kalitate handiagoa bermatuko duten eta ziklo eta eredu aldaketak medio sortutako erronkei aurre egiteko gai diren hiriak eta herriak diseinatu eta antolatzea. Hots, tokiko inbertsioak bultzatuz, udalerrien bizi-kalitatea hobea ez ezik, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-kohesio handiagoa ere lortu nahi da, bereziki, erabilera publikoko azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzu gutxien edo okerren dituzten udalerrietan (Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurilaritza; Eustat; Ikeri Reseach & Consultancy, 2009).

Baina, tokiko inbertsioak gauzatzeko baliabideak beharrezkoak diren neurri berean beharrezkoa da zerbitzuak eta politika publikoak behar bezala planifikatu eta ebaluatzea ere.

Horrenbestez, ingurumenari loturiko informazioa eta erabaki politikoetan ingurumena aintzat hartzea funtsezkoa da politiken plangintza ereduaren eraginkortasuna bermatzerakoan. Beraz, tokiko jarduera eta politika publikoak behar bezala planifikatu eta ebaluatzeko, informazio-sistema bat behar da. Behar honi erantzun bat emateko sortu zen Udalmap udalerri mailako informazio sistema, beraz, ikerlan honetan garatuko den Gipuzkoako udalerrien iraunkortasunari buruzko azterketarako datu iturri moduan erabiliko da.

Azpirarratu behar da, Udalmap-ek Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerrietako errealitate sozioekonomikoa eta ingurumenari loturikoa hobeto ezagutu ahal izateko zerbitzu publikoa eskaintzen du, hots, Udalmap datu baseak tradizionalki onartuak izan diren iraunkortasunaren dimentsio ezberdinei, hau da, ekonomikoa, soziala eta ingurumena buruzko adierazleak jasotzen ditu EAEko udalerri guztientzako.

3. METODOLOGIA ETA ALDAGAIEN ZEHAZPENA

Metodologiaren ezaugarriak

Gure metodologia proposamena aldagai anitzeko tekniketako baten erabilpenean oinarritzen da. Izan ere, aldagai anitzeko teknikak oso eraginkorrak dira informazio masa handien interpretazio eta tratamendurako. Mota honetako teknikekin, estatistika deskribatzailearekin ez bezala aldagai asko aldi berean alderatzea posible da eta azterketa deskribatzaileak, zeinak aldagai bat edo gehienez bi aztertu ditzaken aldi berean, baino interpretazio askoz ere aberatsagoa eskaintzen dute (Li, Zhang, Yuan, & Liu, 2012; Herrera-Ulloa, y otros, 2003).

Beraz, ikerketa lan honen helburuak lortzeko hurrengo azterketa burutu da. Lehenik Osagaia Nagusien Analisia gauzatu da, hau da, udalerrien iraunkortasun mailari buruzko informazioa aztertzeko oinarri bezala hartu diren aldagaiak osagai nagusietan bilduko dira. Izan ere, Osagai Nagusien Analisia (ONA) erregio mailako garapen iraunkortasuna neurtzeko tresna egokia da. ONA-n oinarritutako ebaluaketa azterketaren emaitza beste ikerlan batzuen emaitzekin bat egiten du eta egungo erregio mailako garapenari buruzko egoera aurkeztu dezake, zeina oso erabilgarria den gobernantza edota politika arloko erabakiak hartuko dituenarentzat (Bastianoni, Pulselli, Focardi, Tiezzi, & Gramatica, 2008).

Jollife-ren arabera (2002), Osagai Nagusien Analisiaren bidez Osagai Nagusiak deituriko aldagai berriak kalkulatu dira, zeinak aldagai orijinalen konbinazio linealak diren eta laginaren aldakortasuna, bariantza bezala neurtzen dena, ahalik eta gehien azaltzen duten. Beste modu batera esanda, Osagai Nagusien Analisia⁵ (ONA) edo *Principal Components Analysis (PCA)* elkarrekiko korrelazioa duten aldagai multzo bat korrelaziorik gabeko *osagai* izeneko aldagai kopuru txikiago batean laburbiltzen duen teknika bat da. Kasu honetan bariantzak aztertu diren udalerrien arteko jarrera ezberdintasuna azaltzen du.

Gainera, osagai bakoitza aldagai guztien konbinazio lineal bat izango da. Osagai Nagusi bakoitzak batez ere korrelazio nabarmenena duen aldagaiekin izango du loturirik handiena. Beraz, k aldagai multzoarentzako, osagai nagusi bakoitza honela definitu daiteke:

$$\text{Osagai Nagusia}_j = \beta_{1j}X_1 + \beta_{2j}X_2 + \dots + \beta_{kj}X_k$$

non X_1, \dots, X_k k aldagaiak diren eta B_{ij} aldagaia eta j osagai nagusiaren arteko erlazioa adierazten duen pisua edo karga faktoriala den.

5 Zenbaitetan Konposatu Nagusien Analisia (KNA) izenez ere ezagutzen da.

Azpinarratu behar da Osagai Nagusiak ez direla datu matrize originaletik zuzenean lortzen baizik eta C^{-1} kobariantza matrizezik edo \vec{K} korrelazio matrizea estandarizatutik. Ikerlan honetan erabili diren adierazle guztiek ez dutenez neurri unitate bera \vec{K} korrelazio matrizea estandarizatuan oinarrituta burutu da azterketa.

ONA prozedurak auto-balioak lortzea eskatzen du, horretarako ondorengo ekuazio karakteristikoa askatu behar da:

$$|\vec{K} - \vec{\lambda}\vec{I}| = 0$$

\vec{K} korrelazio matrizea eta \vec{I} identitate matrizea direlarik. Emaitza $\vec{\lambda}$ auto-balioen bektorea da. Modu horretan lortutako auto-balioak Osagai Nagusi bakoitzak jatorrizko aldagai multzoaren bariantza zein neurritan azaltzen duen adierazten du. ONAren helburua ahalik eta bariantza mailarik handiena azaltzea bada ere ulermen maila onargarri bat lortzeko osagai nagusien kopurua mugatua izan behar da. Egile ezberdinek diotenaren arabera, orokorrean osagai nagusien kopuru egoki batek jatorrizko datuen bariantzaren %70a azaldu beharko luke gutxienez (Clerici, Bodini, & Ferrarini, 2004), baina atalase hau jatorrian ditugun aldagai kopuruaren arabera aldatu egin daiteke (Jackson, 1993; Peres-Neto, Jackson, & Somers, 2005). Esate baterako, Jackson-ek (1993) aipatzen duen moduan, osagai nagusien analisis (ONA) zenbat osagai nagusirekin geratu erabakitzeko irizpide erabilienak bat balioa baino handiagoa duten auto-balioari loturiko osagai nagusiak bakarrik mantentzea eskatzen du.

Behin osagai nagusiak zehaztu eta udalerrri bakoitzari dagokion puntuaketa lortu ostean, udalerrrien iraunkortasuna neurtzen duen indize bat honela definitu daiteke (Soler-Rovira & Soler-Rovira, 2008; Li, Zhang, Yuan, & Liu, 2012):

$$ONA_{Iraunkortasuna}(i) = \frac{\sum_{k=1}^j F_{ki} \sqrt{\lambda_k}}{\sum_{k=1}^j \sqrt{\lambda_k}}, i = 1, 2, \dots, n$$

non F_{ki} garren udalerrriak k-garren osagai nagusian duen puntuazioa den eta λ_k k-garren osagai nagusiarri loturiko autobalioa den. Beraz, aurreko ekuazioan $\sqrt{\lambda_k}$ udalerrri bakoitzaren koordinatu sintetizatu bat lortzeko ponderazio balio moduan erabiltzen da. Horrela definitutako indize batek aztertutako udalerrri bakoitzak iraunkortasunari loturiko balio erlatiboari buruzko informazioa eskaintzen du.

Aldagaien Hautaketa

Udalerrien iraunkortasunaren indize sintetikoa lortzeko guztira 1. Taulan jasotzen diren 16 adierazle aukeratu dira. Adierazle hauek iraunkortasunaren dimentsio ezberdinen oinarritzko ezaugarriak biltzen dituzte, hots, ekonomia eta lehiakortasuna ardatza, kohesio soziala eta bizi kalitatea ardatza, eta ingurumena eta garraioa ardatzetako aldagaiak bildu dira.

Ekonomia eta lehiakortasuna ardatzaren baitan arlo ezberdinak kontuan izango dituzten adierazleak bildu dira. Hau da, ekonomi egitura, ekonomi dinamismoa, hezkuntza eta udaleko ekonomi finantza kudeaketa arloetan banatzen diren 6 adierazle erabili dira. Beraz, udalerriko Balio Erantsi Gordin (BEG) osoaren baitan, industria eta zerbitzu sektorek sortutako partaidetza (ehunekotan) jasotzen duten adierazleak landu dira. Adierazle hauek

antzeko beste ikerlan batzuetan ere kontuan izan dira (Chao-qi, Chao-yun, Xiao-bin, & Yi-kang, 2009; Herrera-Ulloa, y otros, 2003). Horrez gain, ekonomia eta lehiakortasunarekin zerikusia duten beste lau adierazle ere erabili dira: Udalerrriaren biztanleko BPG, BPG enpleguaren arabera, gutxienez 2. mailako ikasketak gainditu dituzten 10 urte edo gehiagoko biztanleria eta Udalaren zerga bilketa biztanleko.

Kohesio soziala eta bizi kalitatea ardatzari loturik demografia eta urbanismoa arloarekin zerikusia duten 3 aldagai kontuan izan dira. Haur indizea, zahartze indizea eta demografia dentsitatea. Zahartze indizea eskariaren sofistikazio maila neurtzeko erabili izan da hainbat lan akademikoetan eta demografia dentsitatea aglomerazioen ekonomien azalpenerako (Muller & Nauwelaers, 2005; Navarro, Gibaja, Bilbao-Osorio, & Aguado, 2009).

Bestalde, ingurumena eta garraioa ardatza karakterizatzeko, hondakinak, ura, energia eta garraioa eta mugikortasuna arloei buruzko informazioa jasotzen dituzten 7 adierazle erabili dira: hondakin arriskutsuen kudeaketa biztanleko, udalerriko urteko kontsumo elektrikoa, ur eskari osoa eta uraren industri eskaria, bizi den herritik kanpo lan edo ikasten duen 16 urte edo gehiagoko biztanleria eta udalerrien arteko irisgarritasuna.

Taula: 1: Udalerriak iraunkortasunaren arabera alderatzeko erabiltako aldagaiak

Adierazleak	neurri unitatea	Ardatza	Arloa	Azken data	Maiztasuna	Kalkulu metodoa
Industria sektorearen BEG	(%)	EL ¹	Ekonomi egitura	2012	5 urteik behin	$\left(\frac{\text{Industria sek. BEG}}{\text{Udalerriraren BEG}}\right) \times 100$
Zerbitzu sektorearen BEG	(%)	EL	Ekonomi egitura	2012	5 urteik behin	$\left(\frac{\text{Zerbitzu sek. BEG}}{\text{Udalerriraren BEG}}\right) \times 100$
Udalerraren biztanleko BPG	(€/biztanle)	EL	Ekonomia dinamismoa	2012	5 urteik behin	$\frac{\text{udalerriraren BPG}}{\text{Biztanleria}}$
BPG enpleguaren arabera	(€)	EL	Ekonomia dinamismoa	2012	5 urteik behin	$\frac{\text{udalerriraren BPG}}{\text{udalerririko biztanleria okupatua}}$
Gubienez 2. mailako ikasketak gainditu dituzten 10 urte edo gehiagoko biztanleria	(%)	EL	Hezkuntza	2013	5 urteik behin	$\frac{\text{gubienez 2. mailako ikasketak gainditu dituzten} \geq 10 \text{ urte biztanleria}}{\geq 10 \text{ urte biztanleria}} \times 100$
Udalaren zerga bilketa biztanleko	(€/biztanle)	EL	Udaleko ekonomi finantza kudeaketa	2012	Urtero	$\frac{\text{zerga zuzenen} + \text{zeharkako zergen} \text{ bilketa}}{\text{udalerririko batez besteko biztanleria}}$
Haur indizea	(%)	KS/BK ²	Demografia	2014	Urtero	$\left(\frac{0 - 14 \text{ urteko biztanleria}}{\text{biztanleria}}\right) \times 100$
Zahartze indizea	(%)	KS/BK	Demografia	2014	urtero	$\left(\frac{\geq 65 \text{ urteko biztanleria}}{\text{biztanleria}}\right) \times 100$
Biztanle dentsitatea	(biz/km ²)	KS/BK	Urbanismoa	2014	urtero	$\left(\frac{\text{biztanleria}}{\text{tur eremu osoa}}\right)$
Hondakin arriskutsuen kudeaketa biztanleko	(kg./biztanle/urte)	IM ³	Hondakinak	2004		$\left(\frac{\text{hondakin arriskutsuen urteko bolumena}}{\text{batez besteko biztanleria}}\right)$
Udalerririko urteko kontsumo elektrikoa	(Kwh./biztanle)	IM	Energia	2014	Urtero	$\left(\frac{\text{udalerririko urteko energia kontsumoa}}{\text{batez besteko biztanleria}}\right)$

Ur eskari osoa, biztanle eta eguneko	(U/biz/egunak)	IM	Ura	2014	$\left(\frac{\text{urteko ur eskari osoa}}{\text{biztanleria}} - 365 \right)$
Uraren industria eskaria, biztanle eta eguneko	(U/biz/egunak)	IM	Ura	2001	$\left(\frac{\text{urteko uraren industri eskari osoa}}{\text{biztanleria}} - 365 \right)$
Bizi den herritik kanpo lan egiten duen 16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua	(%)	IM	Garraioa eta mugikortasuna	2011	$\left(\frac{\text{Bizi den herritik kanpo lan egiten duen} \geq 16 \text{ urteko biztanleria okupatua}}{\geq 16 \text{ urteko biztanleria okupatua}} \times 100 \right)$
